



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko IRAILA - 176. zenbakia

Irailaren 24an abiatuko da Donibane Lohizunen Xilaba txapelketa

Zazpi saio izango ditu osotara eta azaroaren 12an amaituko da Baionan. 15 bertsozale hartuko dute parte Xilabaren bosgarren edizio honetan.

Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarreko bertsozaleak biltzen dituen Xilaba txapelketaren bosgarren edizioa abiatuko da hilaren 24an Donibane Lohizunen.

Bi kanporaketa, lau finalurreko eta finala izango ditu txapelketak. 12 bertsozale hasieratik abiatuko dira eta orain bi urteko txapelketako hiru lehenengo sailkatuak, Sustrai Colina, Maddalen Arzallus eta Odei Barroso, berriz, finalurrekoetan hasiko dira.

Irailaren jokatu diren bi kanporaketetan seina bertsozale hartuko dute parte eta horietatik bederatzia izango dira finalurrekoetara sailkatuko direnak. Zuzenean sailkatuta dauden hiru bertsozalekin hamabiko taldea osatuko dute berriro eta bertsozale bakoitzak bi finalurrekotan abestuko du.

Lau finalurrekoak jokatu ostean, puntuaziorik altuena lortzen duten sei bertsozaleak sailkatuko dira azaroaren 12ko finalerako. Lehenengo bi sailkatuen arteko buruz burukoarekin amaituko da azken saioa.

Ohi bezala, www.bertsozale.eus eta www.bertsoa.eus webguneen bitartez Xilaba txapelketaren jarraipen zehatza egin izango duzue bertsozaleok.

Egutegia

Irailak 24

Donibane Lohizune, Ravel aretoa
Ametz Arzallus, Egoitz Zelaia, Kerman Diaz, Miren Artetxe, Nahia Sasco eta Ramuntxo Christy.

Urriak 1

Muskildi, Posonpesenea
Aitor Servier, Battitt Crouspeyre, Eneritz Zabaleta, Maddi Sarasua, Orzi Idoate eta Xumai Murua.

Urriak 8

Baigorri, Plaza Xoko gela
Sustrai Colina, Odei Barroso + puntuazioaren arabera lehen faseko bigarrena, laugarrena, seigarrena eta zortzigarrena.

Urriak 15

Izturitze, Herriko gela
Maddalen Arzallus + puntuazioaren arabera lehen faseko lehena, hirugarrena, bosgarrena, zazpigarrena eta bederatzigarrena.

arabera lehen faseko lehena, hirugarrena, bosgarrena, zazpigarrena eta bederatzigarrena.

Urriak 22

Aiziritze, Herriko gela
Hirugarren finalurrekoa

Urriak 29

Larresoro, Herriko gela
Laugarren finalurrekoa

Azaroak 12

Baiona, Lauga gela
Finala

Saio guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.



UNAI MENDIZABAL JAUREGI
Zarautz, 2016-IX-02
Lizardi sariketako irabazlea

Doinua: Bizkorra ez naiz baina badaukat

Gogoan daukat haurra nintzela zure magalan epela bertso zaharrak zure ahotik noiznahi irteten zirela. Ordun ez zenun usteko ni gaur hemen egoterik, bela! Nahiz ta urtiak diran gugandik urruti joan zinela zauden tokian zaudela (bis) aitona zuri jantzi nahi dizut eman didaten txapela haurra nintzela zuria neri jantzen zenidan bezala. (bis)



Duela bi urte bezala Baionako Laugan jokatu da Xilabako finala.//XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinu-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

Ahalduntze Bertso-eskola, ikasturte berriari ekiteko prest

Bertso-eskola urrian hasiko da eta 2017ko ekainean amaitu. Hilean behineko maiztasuna izango du.

Bertsolaritzarentzat emakumeak plazan izateak duen garrantziaz jabeturik, eta emakumeen jendaurreratzean ematen diren ezaugarri orokorrak kontutan hartuta, bertsolari bezala aurrera egin nahi duten emakumeentzat lagungarri izateko sortu zen Ahalduntze Bertso-eskola. Pasa den ikasturteko esperientzia aberasgarriaren ostean, ikasturte honetan bigarren edizioari helduko zaio.

Konpromisoan, esperimentazioan eta aniztasunaren oinarrien gainean, hiru modulu nagusitan banatu da Ahalduntze Bertso-eskolaren ikasturte berria: sexua, emakumeen rol ezberdinak eta autodefentsa. Ainhua Aranburuk eta Arkaitz Goikoetxeak egingo dituzte gai-jartzaile eta bideratzaile lanak eta Madeleine Cannonekin egingo dute gorputz lanketa bertso-eskolako kideek.

Hilean behineko maiztasuna izango du bertso-eskolak; hilabeteko hirugarren larunbateko goizez izango dira saioak, Villabonan, Bertsozale Elkartearen egoitzan. Bertso-eskola urrian hasiko da eta 2017ko ekainean amaitu.

Izena emateko epea irailaren 14tik 28ra luzatuko da. Partaide kopurua mugatua denez, taldea osatzeko orduan izena emateko ordena hartuko da kontutan. Horretarako umorez@bertsozalea.

eus posta elektronikora mezu bat idatzi behar da; matrikularen zenbatekoa 150 eurokoa da.

Bertsozale Elkarteko Genero saila da Ahalduntze Bertso-eskolako antolatzailea eta ekimen honetarako Emakunderen babesa jaso du.



Harrera oso ona izan du Ahalduntze Bertso Eskolaren lehenengo edizioak. //XDZ

Martxan da lehenengo Lanku Beka

Bertsolaritza oinarri duten emanaldi berriak sortzen laguntzea da jaiotze berri den Lanku Beka ekimenaren helburua. Bi sari izango ditu lehenengo edizio honek eta lanak aurkezteko epea azaroaren 15era arte egongo da zabalik. Ondoren, bost kidek osatutako epaimahai batek erabakiko du sarien banaketa.

Bi helburu nagusirekin jaiotze berri da Lanku Beka egitasmoa. Batetik, bertsolaritza muinean duen emanaldi berriak sortu eta laguntzea eta, bestetik, Lankuren eta sortzaileen arteko elkarlana sustatzea eta sendotzea. Horretarako bertsoa oinarri izango duen emanaldi berri baten gidotza sortzea eta garatzea da egin beharreko lana. Emanaldien gaia eta helburu-hartzailea libreak dira.

Lanku Bekan adin nagusikoak diren bertsolariak, gai-jartzaileak eta bertso-eskoletako kideek hartu ahal izango dute parte. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean amaituko da eta sarituen berri abenduaren 16a baino lehen emango dute.

Bost kidek osatuko dute Lanku Bekako epaimahaia eta hauek


izango dira lanak baloratzeko irizpide nagusiak: bertsolaritzak duen zentralitatea; ideiarenean, formatuaren eta gidotzaren orijinaltasuna; helburu-publikoarengana ailegatzeko aukerak; hizkuntza egokitasuna eta genero berdintasuna; naturarekiko begirunea edota kultur aniztasuna.

Bi sari nagusi banatuko ditu Lanku Bekaren lehenengo edizio honek. Gidoi onenarentzako sari nagusia 800 eurokoa izango da. 500 euroko beste sari bat egongo da, 18 eta 22 urte bitartekoek egindako gidoi onenarentzat. Horrez gain, epaimahaiak aipamen bereziak egin ditzake.

Lanku Bekaren gaineko xehetasun guztiak www.lanku.eus webgunean aurkituko dituzue.

Kantu inprobisatuen mundua, Donostian

2015eko udazkenean ekin zioten Mintzola Ahozko Lantegiak eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak elkarlanean *Europa bat-batean* egitasmoari. Udaberriari eman zitzaion jarraipena Euskal Herriko hainbat tokitan izan ziren emanaldien bitartez eta uztailean amaitu zen. Astebetez, UPV/EHUko Uda Ikastaroen barruan, jardunaldi akademikoak egin ziren Donostiako Miramar Jauregian, ahozko kantu inprobisatuaren gaineko arlo ezberdinak landuz. Horrekin batera, Austria, Herrialde Katalan, Mexiko, Kuba, Gales, Zipre eta Euskal Herriko inprobisatzaileek emanaldiak eskaini zituzten aste osoan zehar. Topaketa Kursoaren egin zen nazioarteko jaialdiarekin amaitu zen.





Puntu jarrita

SERGIO HERNANDEZ TXENTXO

Nire zutabea Aimar eskertuz hasi nahiko nuke, lehen aletik azken alera etxean gordetako Bertsozale boletinean parte hartzen uzteagatik. Nire bertso zaletasuna irla txiki bat izan da Nafarroako Pirinioetan, gaztetxotatik gaur arte, gaur egun, helduen bertso eskola bat medio egoera zertxobait aldatzen ari den arren. Konta dezadan beraz nire xumean bizitako anekdotaren bat.

Lehenengoa 10 urte neuzkala izango zen, Hilario Eslaba eskola publikoan. Bertara Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikano ekarri zituzten. Nire ikaskide eta eskolakide gehienek ez zieten arreta gehiegirik jarri eta horregatik saioa bukatuta galdera egin zioten andereñoari: "Nor da saltoka eta harroturik dabilen haurren atzean isilik eta begi zabalik jarria den mutikotxo hori? Horrek bertsoa maite du!". Ni nintzen. Bertsolaria beti transmisioa zaintzen.

1996ean, 16 urte neuzkala, Aezkoako Hiriberrira bertso afari batez gozatzera hurbildu nintzen. Xabier Amuriza eta Unai Iturriaga kantuan. Ordurako, inguruko bizilagunek bazuten nire zaletasunaren berri. "Txentxo, bota bertso bat" izango zen gehien entzun zen esaldia gau hartan. Amuriza, ni herabeturik eta loturik ikusirik, niregana inguratu eta hala erran zidan: "Zu lasai, bertsoa bota nahi baduzu nahi duzunean bota, baina hona gu etorri gara bertsozara, beraz lasai." Bertsolari handiak zein gertukoak izan daitezkeen ikasi nuen egun hartan.

Tartean, 1993ko Euskal Herriko finala Mezkiritzeko gurasoen etxeko telebista zaharrean nola ikusi nuen gogoratzen naiz. Orduantxe erabaki nuen hurrengo denak bertatik bertara jarraitzea eta gaur egun arte behintzat hala da. Besta nazional baten parte sentitzea baino ederragorik ba al da?

Oso une hunkigarriak utzi dizkit nire barrenean iltzaturik bertsoak. Gogoan dut Lizaso hiru belaunaldiak mahai berean bertso kantari entzun nituenekoa. Amari buruz bertsoan ari zen Joxek bertsoa amaizu eziniik mikroa utzi zuenean, neroni ere malko txiki bat lerratu zitzaidan masaileen behera.

2009ko Txapelketa Nagusian, Bergaran, Jon Martin eta Maialen Lujanbio zortziko txikian zebiltzan bitartean argia joan zen. 2001ean Belodromoan Sustrairi eta Unairi gertatutakoa etorri zitzaigun gogora denoi. Bergarako bereziki magikoa izan zen. Oilo-ipurdi azala jarri zitzaidan neri, 1.500 pertsona ahots batean errepika kantatzen genuela ikustean. Bat-batekotasunaren une ederrenetariko bat.


Halarik ere, nire bertso zaletasunaren iturri nagusia bertso zaharretatik dator. Horregatik, iturri hortako tanta garrantzitsu bati hitza ematea erabaki dut, Patxi Iraolari. Patxi, bertsolari bezala bizitako une gogoangarrienak kontatuko dizkiguzu?

Koplak

Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria

Udazkenaren etorrerarekin batera, Hitzetik Hortzera ere itzuliko da gure telebistetara. Urriaren 2an hasiko da saio beteranoaren denboraldi berria. Igandero arratsaldeko 15:00etan izango duzue Hitzetik Hortzera ikusteko aukera ETB1en, edo internetez Nahieran. Hainbat berrikuntzarekin dator Hitzetik Hortzera eta hurrengo hilabeteko Bertsozalean izango duzue horien berri.

Poto-Finixa



Udalekuetako momentu magikoak

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertsotruken bigarren edizioa, abiatzear

Pasa den ikasturtean jarri zen martxan Bertsotruk ekimena, Euskal Herriko helduen bertso- eskolen arteko desafioak. Esperientziak harrera ona izan zuen eta ikasturte berriarekin bigarren edizioa abiatuko dute. Portugaleten egin den Bertso Eskolen Egunean aurkeztu dituzte talde parte-hartzaileak eta multzoak. Hurrengo hilabetean ere honen inguruko berri zehatzagorik jasoko duzue.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

TES TU RAK

TESTOTIK TESTARA ZABALETİK ESTURA

LITERATURA TESTOTATİK ABIAUTAKO BERTSO SAIOA

OHOLTZA

BENAT KROLEM

PETRUSKO ETZI EZ ETSI!

PUBLIZITATEA